

## **12. AKTA**

2001eko urriaren 8an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta bateko urriaren zortzian, lehenengo deialdian eta Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Idazkari jauna bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Xabier Portugal Arteaga j.  
Obdu Lorenzo de Dios a.  
Anjel Ouviña Vidal j  
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.

araz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordeak ospatzeko behar hainbat partaide etorri dela, irekitzat eman du Gobernu Batzordea 13:00etan, ondoren Gaizerrenda hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

- Donostiako 2 zka. daraman Kontentziosoko Epaitegiaren epaiaren berri eman da, 244/00 zka. daraman Ohiko Errekurtsioan, non demandatzailea den Gipuzkoako Delineanteen Kolegio Ofiziala eta demandatua Pasaiako Udal hau, Perituen eta Injineru Teknikoen Kolegio Ofizialarekin eta Euskal Arkitektoen Kolegio Ofizialarekin, Gobernu Batzorde honek 2000ko apirilaren 14an hartutako akordioari buruz, zeinen bidez ukatu egiten baitzitzaion Pasaiako Oarso kaleko 19an behean autoentzako zaindegi bat jartzeko lizentziaren eskaera, ustez proiektua ez zuelako aurkeztu teknikari kompetenteak eta gaitzetsi egiten du Gipuzkoako Delineanteen Kolegioak tartekaturiko Liskar Auzi Administratiboko Errekurtsioa, errekurtsioaren helburua zen egintza administratiboa zuzenbidezko deklaraturik.

### **1.- Udal langileak zorientzea.**

Kontuan izanik euroa badatorrela eta udal-tasa batzuk kobratzeko egutegia modifikatu egin behar izan dela eta honek besteak beste uraren kontagailuak irakurtzeko periodoa aurreratzea edo murriztea ekarri duela.

Aurrekoa kontuan izanik eta lan gehiago egin beharra izan dela, erdi denboran egin beharra izan denez.

Azpimarratu nahirik kontagailuen irakurketaz ardura dutenen langileen profesionaltasuna, Gobernu Batzorde honek bertako zinegotzien aho batez eta Alkatetzaren proposamenez,

**E R A B A K I D U**

LEHENENGO.- IÑAKI TREZET MANZISIDOR, JULEN URIARTE MARTIKORENA eta ERRIKARTE GABANTXO ITURRIZAGA udal-enplegatuak zoriontzea, aipatu lanak egiteko erakutsi duten interesagatik.

BIGARREN.- Zoriontze honen berri emango zaie interesatuei, arduradun zuzenei eta langileen ordezkariari.

## **2.- Kontu-fakturen 10/01 zenbakiko zerrenda.**

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 10/01 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, HOGEITA BOST MILIOI LAUROGEITA HAMAR MILA HIRUREHUN ETA HAMAZAZPI (25.090.317,-) pezetakoa.

Halaber Gazteriaren Departamenduak Iturgaitzen mahai eta aulkiak erabiltzeari dagokion fakturari buruz, Gobernu Batzordeak erabaki du aipatu departamenduko andre arduradunari ematea aipatu materiala erosteko estudioa egin dezan, erostea errentagarriagoa izan daitekeelako akuratzeari baino.

## **3.- “Rikardo Arrillaga kalean igogailua jarri eta Trintxerpeko Itsas Institutuaren inguruan urbanizazio osagarria egitea” obraren 2. ziurtagiria.**

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea “Rikardo Arrillaga kalean igogailua jarri eta Trintxerpeko Itsas Institutuaren inguruan urbanizazio osagarria egitea” obraren 2. ziurtagiria, Obren zuzendaria den Rodrigo Milla Azkona jaun Arkitektoak luzatua, CONSTRUCCIONES ERGA, S.L. enpresa kontratistaren alde, SEI MILIOI ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU MLA ZAZPIEHUN ETA HIRU (6.873.703,-) pezetakoa.

Hau guztia D-1494/00 Disposamenduaren kargura.

## **4.- “San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Hiri Eremua berriro hiritartzea” obraren 7. ziurtagiria.**

Gobernu Batzordeak erabaki du “San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Hiri Eremua berriro hiritartzea” obraren 7. ziurtagiria, Obra Zuzendariak diren Joan Karlos Lapazaran Izargain Arkitekto jaunak eta Jose M<sup>a</sup> Irazusta Garikano Arkitekto Teknikariak luzatua CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde BI MILIOI ZORTZIEHUN ETA HEMERETZI MILA LAUREHUN ETA HAMASEI (2.819.416,-) pezetakoa.

Hau guztia D-943/00 Disposamenduaren kargura.

## **5.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak aldatzea.**

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Departamenduak 2001eko irailaren 11an aurkeztutako proposamena, Gizarte Larrialdietako Laguntza Ekonomikoen modifikazioei buruz, 2/01 zka. daraman proposamenari dagozkionak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Gobernu Batzordeak 2001eko maiatzaren 21eko batzarraldian onartutako 2/01 zka. daraman proposamenari buruzko Laguntzak modifikatzea, espedientean agertzen den onuradunarenak, eman diren aldaketak direla eta, dagokion espedientean agertzen den kopurua anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu inportea Gizarte Larrialdien partidaren sartzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzaren departamenduari ematea.

## **6.- Trintxerpe Kirol elkartearentzako dirulaguntza, Pasaiako XIII. Hiria Mountain Bike proba” antolatzeko.**

Gazteriaren Batzorde Informatiboak 2001eko irailaren 20an emandako diktamenaren bidez egindako proposamenaz, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

TRINTXERPE KIROL ELKARTEARI 500.000,- pezetako subentzioa ematea “Pasaiako XIII. Hiria Mountain Bike proba” antolatzeko, 06-481-452-10-01 partidaren kargura eta indarreango udal-aurrekontuko A-1126/01 Baimenduaren kargura.

Aipatu subentzioa bi partetan emango da: %80 akordio hau onartzean eta gainerako %20 behin memoria eta dagozkion fakturak aurkeztean.

## **7.- Pasaiako Motor Elkartearentzako dirulaguntza, “Pasaiako Hiria Saria” izeneko II. karting proba antolatzeko.**

Gazteriaren Batzorde Informatiboko Lehendakariak 2001eko irailaren 28an luzatutako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

Pasaiako Motor Elkartearentzako dirulaguntza ematea, “Pasaiako Hiria Saria” izeneko II. karting proba antolatzeko.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-1127/01 Baimenduaren kargura.

## **8.- Trintxerpeko Kirol elkartearentzako eta Koxtaperentzako dirulaguntza “UDA 2001” kanpainan parte hartzeko.**

Gazteriaren Batzorde Informatiboak 2001eko urriaren 2an luzatutako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- TRINTXERPEKO KIROL ELKARTEARENTZAKO eta Koxtaperentzako dirulaguntza “UDA 2001” kanpainan piraguismoa eta mountain bike irakasteko.

BIGARREN.- KOXTAPERI 106.000,- pezetako subentzioa ematea “UDA 2001” kanpainan piraguismoa irakasteko.

HIRUGARREN.- Gazteriaren Teknikariari jakitera ematea komeni dela dirulaguntzari kontratu-izaera ematea, zeren eta ez baitira subentzionatzen aipatu entitateek antolatutako jarduerak baizik eta Udal honen zerbitzuen barruan antolatzen dituzten zerbitzuak.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuan A-689/01 Baimenduaren kargura.

## **9.- Hiritartze ekimenei dirulaguntza ukatzea.**

Kontuan izanik FELIX ZELAIARAN ANDONEGI jaunak Hiritartze ekimenentzat laguntza eskatu zuela “Juandanburu” bere jabetzako baserriaren fatxada berrabiltzeko 2001eko maiatzaren 7an.

Kontuan izanik aipatu kontzeptua ezin dela kokatu Udal honek Hiritartze Ekimenak subentzionatzeko ezarritako kriterioen barruan.

Ikusirik Korporazio Lokalen Zerbitzuen Arautegiko 9. artikulua arabera, eta baita 1999ko uztailaren 12ko Alkatetzaren Ebazpena, zeinen bidez delegatzen baitzaizkio Gobernu Batzordeari subentzioak banatzeko kompetentziak.

Udal Hirigintzako Teknikariaren proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- FELIX ZELAIARAN ANDONEGI jaunari ukatzea Hiritartze Ekimenak laguntzeko eskatutako subentzioa, zeren eta ez baititu betetzen horretarako Udal honek ezarritako kriterioak.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

### **10.- Ondare erantzukizunezko hainbat erreklamazio.**

M<sup>a</sup> Lourdes Mariezkurrena Ezkurra eta bestek egindako erreklamazioa 1998ko abuztuaren 12an J.J. Otaegi Plazako behean dauden garajeetan izandako kalteak direla eta udal-enplegatuek burutu zituzten inpermeabilizazio-obra medio.

Ikusirik aurreko espedientea eta baita bertako txostenak ere eta ados jarrirek erreklamazioak egin dituztenekin, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Behebarru afektatuen jabeai, bai eskatzaileei eta baita besteei ere, (Ignazio Etxarri jaunaren garajea, Federiko Etxarri jaunaren garajea, Lourdes Mariezkurrena andrearen garajea, Migel Trezet jaunaren garajea eta Juandanburu harategia), MILIOI BAT (1.000.000,-) pezetako subentzioa ematea Juandanburu parkean dauden behebarruen sabaletan izandako kalteak direla eta, erabateko kalteordain bezala, honi adostasuna eman beharko dietelarik erreklamatzailerik lehen esandako kontzeptuen izenean kalteordain definitibo bezala, era guztietako kalte eta galeren izenean, erreferentziako kaltearen ondorio bezala, Pasaiaren aurka beste erreklamazioren bat egiteari uko eginaz.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekursoak adieraziz.

### **11.- Candido Ares Estebanek 12. taxi-baimena eskualdatzeko aurkeztutako eskaera, ezintasun fisikoa dela eta.**

Ikusirik Candido Ares Esteban 12. lizentzia titularrak aurkeztutako eskaera kontsulta eginez lizentzia beste norbaiti transmititzeko posibilitateaz ezintasuna %40ko graduan duela eta berak ezin duelako gidatu.

Ikusirik espedienteko aurrekariak, Zerbitzu, Sare eta Mantenimenduaren Udal Batzorde Informatiboaren proposamenez, 2001eko irailaren 19ko diktamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Kontsultari uko egitea eskatu zitzaizkion dokumentazioa ez duelako aurkeztu.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea.

### **12.- Miguel Eugenio Azpilikueta Beramendik 18. taxi-baimena Juan Jose Azpilikueta eskualdatzeko aurkeztu duen eskaera.**

Aurretiazko izapideak eginik, Zerbitzu, Sare eta Mantenimeduaren Udal Batzorde Informatiboaren proposamenez, 2001eko irailaren 19ko diktamenaren bidez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- Miguel Eugenio Azpilikueta Beramendi jaunaren eskaera ontzat ematea 18. taxi-lizentzia transmititzeko bere seme Juan Jose Azpilikueta Olague jaunari hurrengo baldintzekin:

- Interesatuak Udal Bulegoetan aurkeztu beharko du akordio hau hartu eta kontatzen hasita 8 egunen barruan hurrengo dokumentazioa:
- Zerbitzuan adskribatua dagoen autoaren zirkulazio baimena.
- Jardueren Zergan alta helbide soziala Pasaiako udalerrri honetan duela.
- VT hiriarteko arauzko baimena.
- Langile autonomoaren egoera berriari dagokion segurtasun sozialaren dokumentazioa.

BIGARREN.- Interesatuak Udal Diruzaintzan abonatu beharko ditu legezkiokkeen eskubideak interesatuari bera likidatu eta jakinaraziko zaizkionak akordio honek indarra izan dezan.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsoekin.

### **13.- Zenbait hiri-altzari erosi eta jartzeko esleipena.**

Ikusirik “Zenbait hiri-altzari erosi eta jartzeko” lehiaketaren esleipena prozedura irekia eta ohiko izapidearen bidez eta lehiaketa publikoaren bidez.

Gertaturik horretarako irekitako epearen barruan hurrengo proposamenak jaso direla:

LOTEA 1: paperontzien hornidura (75 biribilak eta 250 semibiribilak):

| <b>ENPRESA</b> | <b>ZENBATEKOA</b> |
|----------------|-------------------|
| PERFYDE        | 2.791.830,- pta.  |
| FABREGAS       | 2.914.500,- pta.  |
| GARBIKO        | 2.900.000,- pta.  |

LOTEA 2: 8 markesina jartzea

| <b>ENPRESA</b> | <b>ZENBATEKOA</b> |
|----------------|-------------------|
| COMUNICAL      | 7.651.601,- pta.  |
| PRIMUR         | 8.848.944,- pta.  |

LOTEA 3: ILLUNBE merkatalgunean argizuloak jartzea.

| <b>ENPRESA</b>   | <b>ZENBATEKOA</b> |
|------------------|-------------------|
| ERKA             | 1.168.744,- pta.  |
| ELECTROMON. HIRU | 1.179.998,- pta.  |

LOTEA 4: ILLUNBE merkatalgunean bankuak eta paperontziak jartzea.

| <b>ENPRESA</b> | <b>ZENBATEKOA</b> |
|----------------|-------------------|
| DUCTIL BENITO  | 1.986.941,- pta.  |
| GANBOA LAN     | 2.246.072,- pta.  |

Ikusirik aurkeztu diren proposamenen balorazio-txostena Zerbitzuen Departamenduak aurkeztua eta ikusirik Kontratazio Mahaiak aurkeztutakoa.

Ikusirik Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Testu Bateratuko 85-tik 90 artikulua artekoak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

**E R A B A K I D U**

LEHENENGO.- Lizitazio aktua ontzat ematea.

BIGARREN.- Pasaiaiko Udalerrian “Zenbait hiri-altzari erosi eta jartzeko” lehiaketa esleitzea hurrengo enpresei eta loteei:

- **LOTEA 1:** “Paperontzien hornidura 75 biribilak eta 250 semibiribilak” GARBICO enpresari 2.900.000,- pezetako aurrekontuarekin.
- **LOTEA 2** “8 markesina jartzea” PRIMUR enpresari 8.848.944,- pezetako aurrekontuarekin.
- **LOTEA 3** “ILLUNBE merkatalgunean argizuloak jartzea” ERKA enpresari 1.168.744,- pezetako aurrekontuarekin.
- **LOTEA 4** “ILLUNBE merkatalgunean bankuak eta paperontziak jartzea” DUCTIL BENITO enpresari 1.986.941,- pezetako aurrekontuarekin.

Korporazioarentzat mesedegarrienak diren proposamenen egileak direnez, balorazio txostenak dioenaren arabera ebazpen hau erabakitzeko.

HIRUGARREN.- Lizitatzailerik guztiei atzera itzultzea berme probisionalak, adjudikatariei ezik, hauei errekerimendua egingo zaielarik berme akabaila osa dezaten, esleipen-prezioaren %4ko inportez, kontratuaren esleipenaren berri eman eta hurrengo egunetik hasita HAMABOST LANEGUNEKO epe barruan, Udal Diruzaintzan depositatu beharko dena.

Adjudikatariak gainera akordio honen berri eman eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita HAMABOST LANEGUNEN barruan hurrengo aktuzioak egin beharko dituzte:

- Buletin Ofizialetan azaldutako iragarkiak ordaintzea.
- Udaletxean azaltzea kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeko, jakitera emanez kontratistaren kausaz kontratua formalizatu gabe geratuko balitz, Udalak erabaki ahalko du akordioa bertan behera uztea interesatuari entzun eta gero kalte eta galeren ordainarekin.

LAUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsoein.

#### **14.- “Manzana de los Gatos” 3.03.01 delako Exekuzio Unitateari buruzko Konpentsazio Proiektuaren Testu Bateratua onartzea.**

Kontuan izanik Karmele Azpeitia Otaegi andreak udal-zerbitzu teknikoen errekerimendura aurkeztu duela “Manzana de los Gatos” 3.03.01 – A.I.U. delako Exekuzio Unitateari buruzko Konpentsazio Proiektuaren Testu Bateratua, OTAKA, S.L.-ren errepresentazioan, Jesus Ansa Zabaleta Arkitektoak eta Joaquin Silgero Estagnan Legegizonak erredaktatua, zeren eta 2001eko uztailaren 20ko batzarraldi plenoan onartua izan baitzen eta Proiektu akabaila aurkeztu gabe baitzegoen.

Gertaturik oso argi seinalatzen direla Udalari zeditu beharreko terrenoak HKA-ko 173. artikulua arabera, probetxamendu monetarizatuaren %10 jadanik likidatu dela eta urbanizazio-gastuak bermatuak izan direla.

Ikusirik Hirigintz Kudeaketaren Arautegiko 157.3 eta 174.2 artikulua, zeina 3288/78 Erret Dekretuz onartu baitzen, eta 1992ko Zoru Legearen Testu Bateratuko 304 artikulua Eusko Legebiltzarreko 17/94 Legeko 10. artikulua.

Kontuan izanik 1999ko uztailaren 12ko Alkatetzaren Dekretua Gobernu Batzordeari delegatuz aipatu proiektuen onarpen akabaila, Hirigintzako Teknikariaren proposamenez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- “Manzana de los Gatos” 3.03.01 – A.I.U. Areari dagokion jabe bakarreko Exekuzio Unitateari buruzko Konpentsazio Proiektuaren Testu Bateratua onartzea, Karmele Azpeitia Otaegi andreak aurkeztua OTAKA, S.L.-ren izenean, Garbizu sendiak aurkeztutako alegazioa erretiratua izan delarik.

BIGARREN.- Donostiako 5. zka. daraman Erregistratzaileari eskatzea jabe bakarreko Konpentsazio Proiektuaren testu bateratu honen inskripzioa, seinalatuz bere onarpen akabaila sendoa dela bide administratiboan.

HIRUGARREN.- Donostiako 5 zka. daraman Erregistratzaileari espreski errekeritzea ondorioz geratuko den partzela pribatua afektatua izan dadin, HKA-ko 126. artikulua araberan.

LAUGARREN.- Interesatuari jakitera ematea legezkiokkeen errekurtsioekin batera.

### **15.- Zigor-espeditentea irekitzea.**

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Espedientean behar bezala diligentziatua aurkitzen den 2001eko urriaren 7ko Alkatetzaren proposamena akordio bihurtzea.

BIGARREN.- Aktuazio hauek erreserbatu deklaratzeko eta horretarako beren konfidentzialtasuna bermatua izan dadin, ebazpen hau ez da sartuko Gobernu Batzordearen aktan, bere ordean espedientera bidaltzea onartuz, hau ondorio guztietarako erreserbatua geratuko delarik.

Espediente honen berri duten guztiei oharraraztea isilik gorde behar dutela dakiten guztia.

Eta aztertzeke beste gairik ezean, 14:00etan batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.